**EBAZPENA, 2005EKO AZAROAREN 25EKOA, INGURUMEN SAILBURUORDEARENA, RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. ENPRESARI AMOREBIETA - ETXANO (BIZKAIA) UDALERRIKO ZUBIKURTZE 4 DITUEN INSTALAZIOETAN HONDAKIN EZ ARRISKUTSUEN KUDEAKETA JARDUERA BURUTZEKO BAIMENA EMATEKO DENA.**

**RESOLUCION DE 25 DE NOVIEMBRE DE 2005 DEL VICECONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE POR LA QUE SE CONCEDE A LA EMPRESA RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. AUTORIZACION PARA LA ACTIVIDAD DE GESTION DE RESIDUOS NO PELIGROSOS EN SUS INSTALACIONES SITAS EN ZUBIKURTZE 4, EN EL TERMINO MUNICIPAL DE AMOREBIETA – ETXANO (BIZKAIA).**

RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresak, B95057915 I.F.K.-arekin, Ingurumen Sailburuordetzari baimen eskaria luzatu dio hondakin ez arriskutsuen kudeaketa jarduera burutzeko, hain zuzen, Zornotza (Bizkaia) udalerriko Zubikurtze 4 dituen instalazioetan. Aipatutako kudeaketa jarduera hurrengoa da:

- toner eta tinta kartutxo hondakinen bilketa, onarpena, biltegiratzea eta sailkapena
- toner eta tinta kartutxo hondakinen berziklaketa, birsortze prozesu baten bitartez

**RESULTANDO** que la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L., con C.I.F. B95057915, ha solicitado a esta Viceconsejería de Medio Ambiente autorización para la actividad de gestión de residuos no peligrosos en sus instalaciones sitas en Zubikurtze 4, en el término municipal de Amorebieta (Bizkaia). La mencionada actividad de gestión consiste en:

- la recogida, recepción, almacenamiento y clasificación de residuos de cartuchos de toner y tinta
- el reciclado de residuos de cartuchos de toner y tinta mediante un proceso de regenerado.

2005eko urriaren 19an Ingurumen Sailburuordetzako teknikariek egiaztapen bisitaldi bat egin zuten aipatutako instalaziora aldeko txostena emanez.

**RESULTANDO** que con fecha 19 de octubre de 2005, técnicos adscritos a la Viceconsejería de Medio Ambiente procedieron a la realización de una visita de comprobación a la mencionada instalación emitiendo informe favorable.

Organo honetara atxikitako zerbitzu teknikoek aztertu dute RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresak aurkeztutako dokumentazioa eta baimen eskari gai den hondakin ez arrikutsuen kudeaketa jarduera bat dator Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak hondakinen arloan hasitako jardunekin, Euskal Autonomia Erkidegoan inbentariatutako hondakin mota desberdinen balorizazioa sustatzeko asmoarekin hasitakoak.

**CONSIDERANDO** que los servicios técnicos adscritos a este órgano han analizado la documentación presentada por la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. y que la actividad de gestión de residuos no peligrosos, cuya autorización se solicita, se enmarca plenamente dentro de las líneas de actuación emprendidas en materia de residuos por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, al objeto de promover la valorización de los distintos tipos de residuos inventariados en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 98 06 – Fax 945 01 98 83 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Ebazpen hau emateko eskumena organo honi dagokio Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzeko den urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko Legea, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzeko den urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta oro har aplikagarri den araudia ikusita, hurrengoa

**CONSIDERANDO** que corresponde a este órgano la competencia para la emisión de la presente Resolución de conformidad con lo previsto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco y el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

**VISTAS** la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero y demás normativa de aplicación,

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresari hondakin ez arriskutsuen kudeaketa jarduera burutzeko baimena ematea, hain zuzen, Amorebieta - Etxano (Bizkaia) udalerriko Zubikurtze 4 dituen instalazioetan. Aipatutako kudeaketa jarduera hurrengoa da:

- toner eta tinta kartutxo hondakinen bilketa, onarpena, biltegiratzea eta sailkapena
- toner eta tinta kartutxo hondakinen berziklaketa, birsortze prozesu baten bitartez

**Bigarrena.-** Baimen hau hurrengo baldintzak eta betebeharrak betetzepean dago:

**2.1** Kudeaketa gai izango dira soil-soilik otsailaren 8ko MAM/304/2002 Agindu bidez argitaratutako Hondakin Europear Zerrendan jasotako hurrengo hondakin ez

**RESUELVO**

**Primero.-** Conceder a la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. autorización para la actividad de gestión de residuos no peligrosos en sus instalaciones sitas en Zubikurtze 4, en el término municipal de Amorebieta (Bizkaia). La mencionada actividad de gestión consiste en:

- la recogida, recepción, almacenamiento y clasificación de residuos de cartuchos de toner y tinta
- el reciclado de residuos de cartuchos de toner y tinta mediante un proceso de regenerado.

**Segundo.-** La presente autorización queda supeditada al cumplimiento de las siguientes condiciones y requisitos:

**2.1** Unicamente podrán ser objeto de gestión los residuos no peligrosos que se encuadran en los siguientes epígrafes de la Lista Europea de Residuos publicada mediante la Orden

arriskutsuak:

***08 03 13*** *Bestelako tinten hondakinak, 08 03 12 kodean zehaztu ez direnak (tinta kartutxoak)*

***08 03 18*** *Bestelako inprimatze-tonerren hondakinak, 08 03 17 kodean zehaztu ez direnak (toner kartutxoak)*

**2.2** Baimen gai diren hondakin ez arriskutsuak onartu aurretik, hondakinon titularrari onarpenaren egiaztagiria bidaliko zaio, onarpenaren baldintzak jasoko dituena. Ingurumen Sailburuordetzara agiri honen kopia bidaliko da.

**2.3** Agiri erregistro bat eraman beharko da, gutxienez hurrengo datuak jasoko dituena:

<u>Kudeatutako hondakinak (*hileroko laburpena*)</u>

- Zenbatekoa, izaera eta jatorria.
- Garraio bidea eta balioztatze sistema.
- Balioztatutako hondakinen helburua, azken erabiltzailearen izena espreski aipatuz.
- Balioztatze-prozesuan sortutako hondakinen zenbatekoa, izaera eta helburua.

<u>Baztertutako hondakinak (*hileroko laburpena*)</u>

- Baztertutako hondakinen zenbatekoa, izaera, jatorria eta arrazoia.
- Baztertutako hondakinaren azken helburua.

**2.4** Hiru hilabetero ingurumen organo honetara aipatutako erregistroaren kopia bidaliko da.

**2.5** Urtero, eta beti martxoaren 1a baino lehen, ingurumen organo honi, urteko memoria aurkeztu beharko zaio, alegia, hondakin ez arriskutsuen kudeatzaile bezala burututako jardunei buruzkoa.

MAM/304/2002, de 8 de febrero:

***08 03 13*** *Residuos de tintas distintos de los especificados en el código 08 03 12 (cartuchos de tinta)*

***08 03 18*** *Residuos de toner de impresión, distintos de los especificados en el código 08 03 17 (cartuchos de tóner)*

**2.2** Con carácter previo a la aceptación de los residuos no peligrosos objeto de la autorización, se remitirá al titular de los residuos documento acreditativo de la aceptación de los mismos, en el que se detallen las condiciones de dicha aceptación. Se enviará copia de este documento a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

**2.3** Deberá llevar un registro documental en el que se especifiquen como mínimo los siguientes aspectos:

<u>De los residuos gestionados (*resumen mensual)*</u>

- Cantidad, naturaleza y origen.
- Medio de transporte y método de valorización
- Destino de los residuos valorizados con indicación expresa del usuario final.
- Cantidad, naturaleza y destino de los residuos generados en el proceso de valorización

<u>De los residuos rechazados (*resumen mensual)*</u>:

- Cantidad, naturaleza, origen y causa del residuo rechazado.
- Destino final del residuo rechazado.

**2.4** Con carácter trimestral deberá remitirse a este órgano ambiental copia del mencionado registro.

**2.5** Con carácter anual y antes del 1 de marzo, deberá presentar ante este órgano ambiental, memoria anual, que comprenda las operaciones realizadas como gestor de residuos no peligrosos.

**2.6** Baimen honetako gai den hondakin ez arriskutsuen kudeaketa jarduera handitzea edo aldaketa ingurumen organoari jakinaraziko zaio, badagokio, bere onespena eman dezan.

**2.7** Hondakin ez arriskutsuen balioztatze prozesuan edozein intzidentzia, ingurumenean eragina izan dezakeena, gertatzen bada honen berri berehala eman beharko zaio ingurumen organoari.

**2.8** Balioztatze-prozesua garatzerakoan eta instalazioen mantenimenduan sortutako hondakin guztiak baimendutako kudeatzaile bati eramango zaizkio, kudeaketak egiaztatzen duten agiriak bete beharko direlarik. Kasu honetan kudeaketa egokienak sortutako hondakinen balioztatzea ahaltzen dutenak izango dira, ezabatzeko aukeraren aurrean.

**2.9** Era berean, dokumentazioan zehaztutako neurriak eta berezitasunak bete beharko dira, beti ere, aipatutakoen kalterik gabe.

**Hirugarrena.-** RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresari hondakin ez arriskutsuen kudeatzaile kodea ematea, Ingurumen Sailburuordeak emandako hondakin ez arriskutsuen onarpen agiriak betetzeko erabili behar duena. Kudeatzaile kodea hurrengoa da:

**EUX / 059 / 05**

**Laugarrena.-** Baimen honen indarraldia bost (5) urtetakoa izango da.

Epe hau luzatu ahal izango da luzaera berdineko hurrengo bi (2) epe berdintsuen bitartez, beti ere Ingurumen Sailburuordetzako zerbitzu teknikoek dagokion ikuskapen bisita burutu ondoren eta iraungipen arrazoirik ematen ez bada.

**2.6** La ampliación o modificación de la actividad de gestión de residuos no peligrosos, objeto de esta autorización, deberá ser comunicada y, en su caso, autorizada por el órgano ambiental.

**2.7** Cualquier incidencia que se produzca en el proceso de valorización de los residuos no peligrosos, con posible afección medioambiental, deberá ser comunicado de forma inmediata al órgano ambiental.

**2.8** Todos los residuos generados en el desarrollo del proceso de valorización y mantenimiento de las instalaciones, deberán ser entregados a gestor autorizado a tal fin, cumplimentando los correspondientes documentos acreditativos de dichas gestiones, priorizándose en todo caso como vías más adecuadas de gestión aquéllas que conduzcan a la valorización de los residuos generados frente a las alternativas de eliminación.

**2.9** Serán, asimismo, de obligado cumplimiento las especificaciones y medidas señaladas en la documentación aportada, siempre que no estén en desacuerdo con las anteriormente mencionadas.

**Tercero.-** Asignar a la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. el código de gestor de residuos no peligrosos que debe utilizar para la cumplimentación de los documentos de aceptación de residuos no peligrosos facilitados por la Viceconsejería de Medio Ambiente. El código de gestor es el siguiente:

**EUX / 059 / 05**

**Cuarto.-** El plazo de vigencia de la presente autorización será de cinco (5) años.

Dicho plazo podrá ser prorrogado por dos (2) periodos sucesivos de igual duración, tras la correspondiente comprobación de las instalaciones por técnicos adscritos a la Viceconsejería de Medio Ambiente, siempre y cuando no concurra alguna de las circunstancias que motiven su

caducidad.

**Bostgarrena.-** Baimen honetako iraungipen arrazoiak hurrengoak izango dira:

a) RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresaren nortasun juridikoaren iraungipena

b) RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresaren porrot adierazpena, beti ere honek eta ebazpen judizialaren ondozioz, espreski desegitea adierazten duenean

c) Hondakin ez arriskutsuen kudeaketa jarduera etetea edo bertan behera uztea, RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. enpresak, urte bateko epe batez baino gehiago.

**Quinto.-** Serán consideradas causas de caducidad de la presente autorización las siguientes:

a) La extinción de la personalidad jurídica de la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L.

b) La declaración de quiebra de la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L. cuando la misma determine su disolución expresa como consecuencia de la resolución judicial que la declare

c) La suspensión o abandono de la actividad de gestión de residuos no peligrosos a instancias de la empresa RECICLAJE DE CONSUMIBLES INFORMATICOS IBAIZABAL, S.L., por un periodo superior a un año.

**Seigarrena.-** Bide administratiboa agortzen ez duen Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburuari hilabeteko epearen barruan, hau jakinarazten den biharamunetik hasita, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114 eta ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**Sexto.-** Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse Recurso de alzada ante la Excma. Sra. Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con los Artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko azaroaren 25a

Vitoria-Gasteiz, a 25 de noviembre de 2005

**Fdo.: Ibon Galarraga Gallastegui Iz.**
**INGURUMEN SAILBURUORDEA**
**VICECONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE**